

JOSE LUIS BREA

1. Nire ustez, eragin erreal handiena gertatzen ari da sendotuz doalako (retro)transmisio katea ikuskizunaren enpresen artean -egunetik egunera erraldoiagoak dira- eta areagotu egin delako lan merkatuak imajinarioa sortzeko espezialisten prestakuntza eskaintzen duten instituzioen gainean proiektatzen duen eskaria.

Zoritxarrez, beldur naiz gerta zitezkeen eta are gertatu beharko luketen beste aldaketa batzuk -espiritu kritikoa sustatuko luketenak prestakuntza sendoago baten bidez- ez direla gertatu. Adibidez, halako “espezialisten” prestatze prozesuetan zehar ikasleek kudeaketa sozialean azkenean parte hartu beharko luketen imajinarioaren forma horien azterketa zorrotzerako potentzialen garapena bultzatuko luketenak. Parte har lezakeite bai ekoizle aktibo moduan bai imajinario publikoen kudeaketa horrek dakartzan ondorio guztiekin kontzienteki engaiatutako eragile eta herritarrak diren aldetik.

2. “Gauza onartua dirudiela” esateak kultur ikasketak eta kultura eta ikusizko arteak aztertzeko aplikatutako haren garapena egitate bat dela pentsatzera eramaten du. Eta nire ustez hori errealitatetik oso urrun dago. Espainiaz ari baldin bagara, bederen; eta hala behar genuke “praktika kokatuaz” hitz egin nahi badugu. Beraz, aipatutako agertokia Espainian kokatzen badugu, ustezko “adostasun” hori ez da inondik ere aurkitzen. Hemengo ezein erakunde prestatzaileraren ezein ikasketa planetan ez ditugu haien curriculum garapenei benetan txertatuta ikusi “adostasun handiena bildu duen hezkuntza proposamena” moduan deskribatzen duzun prestakuntza horren eduki bereizgarriak.

Beharbada adostasun “mamu” bat da, halakotzat aldarrikatu ohi dituztenak nortzuek eta interes erabatekoa dutenek “disidentzia” moduan pasarazteko inguruan ikusten duguna, betikoa, berreste hutsa besterik ez dena. Ergelen konspirazio tipiko baten antzeko horretan, neo-aurrerazaleek eta betiko kontserbadoreek jarraitutasun hitzarmena lotzen dute, “Il gattopardo”ko kontsigna ospetsuaren estiloan. Dena aldatzen dela iruditu behar du, denak berdin jarrai dezan. Eta hain justu, hemen denak berdin jarraitzen du, eta hori hala izan zedin egindako hitzarmenak ez du zirrikiturik uzten; are gutxiago, kontuan hartuta ustezko “eszena alternatibo” guztia behin betiko instituzionalizatua izan dela hori bermatzeko.

Edozeinetara ere, uste dut kultur kritikaren azterketa mota honek -batez ere ikus-entzunezko bihurtzearenari, guri interesatzen zaigunari, dagokionez- benetan indar kritikoa ematen diela (edo emango liekeela) gure tresneria analitikoari, agerian uzteko imajinarioaren transferentzia prozesuetan dauden mota guztietako mendekotasunak (besteak beste, izaera geo-estrategikokoak), eta, horrenbestez, praktikak “kokatzeko”, autokontziente eta autokritiko bihurtzeko haiek mintzatzen diren lekuarekiko. Hortik kanpo, praktikek beren buruari “kokatu” deitzeak esan nahi du, nire iritziz, benetan egiten dutena jarraikeria hutsa besterik ez dela, nazioartean nagusitzen den korronte horren jarraipen hutsa, eta haren aintzatespena merezi izateko estereotipo eta eskatzen diren azalera eredu guztiak betetzen dituzte. Eta horrek funtsean predikatzen denaren justu kontrakoa bihurtzen ditu; praktika horiek edozein “situazionismo”tik hustuta daude, edo, elkar uler dezagun, praktika “erreplikak” dira, nazioartean nagusitzen den *mainstream* horren aginduaren errepikapenak (hau da, erabat deskokatutako praktikak, mundu

globalizatuko edozein lekutan dauden beste hainbat eta hainbat identikoetako bakoitzaren oihartzunak).

3. Galdera pertsonalizatu samarra iruditzen zait, ez nago ziur nirea bezalako “kasu partikular” batek berez interes apartekorik ote duen. Edonola ere, eta oro har hitz eginda, esango nizuke unibertsitate irakaslea naizen aldetik irakaskuntza bideratzen dudala nire ikasleak harremanetan jar daitezen estetikak eta arte teoriak hornitzen duten tresneria zorrotzen eta kritikoenekin, Nietzsche, Marx eta Freudetik hasita (susmoaren eskolaren hirukote fundatzailea diren aldetik) egungo pentsamenduraino, behin eta berriz pasatuta frantziar postestrukturalismotik eta Frankfurt eskolatik, hots, neure prestakuntzak gehien hartu duenetik (bereziki Deleuze eta Derrida).

Edozein kasutan, saiatzen naiz orobat neure burua eta ikasleak material kontzeptual eta teoriko berrienetara hurbiltzen (esate baterako, une honetan bi mintegi ari naiz lantzen nire unibertsitatean, lehena *kultur kapitalismoaz*, eta bigarrena *humanitate berriak eta ezagutzaren unibertsitatea* gaiaren inguruan, hain zuzen ere), eta batez ere saiatzen naiz irekiak diren eta gure garaiaren korapilo problematikoak definitzen dituzten auzi eta eztabaidak planteatzen. Zer gailuz baliatzen naiz horretarako? Urteak dira erabiltzen ditudala ikasleen parte-hartzerako tresna elektronikoak, eztabaidagune eta posta zerrendetatik blogetaraino, halako moldez non, ahal den neurrian eta betiere besteren egiletza eskubideak errespetatuta, saiatzen bainaiz errazten ezagutzaren zirkulazio askerako agertoki baten zabaltzea.

Azkenik, eta saiakeragile eta kritiko gisa egiten dudan lanari dagokionez -eta aipatzen dut benetan uste dudalako neure irakaskuntza praktika ulertzeko neure moduaren parte bat dela, formatu “arautu”etatik haratago-, 1998tik hona banaketa askearen erregimenpean argitaratzen aritu naiz, GNU edo Creative Commons lizentziak existitu baino lehenagotik ere. *Acción Paralela* izan zen Espainian bere osotasunean sarean argitaratzen zen lehena, eta eduki guztiak dohainik deskarga zitezkeen, eta beste horrenbeste esan daiteke *alephi* dagokionez teknologia berriek arte sorkuntzan duten eraginaren inguruko gogoeta publikoaren esparruan. Harrez geroztiko nire liburuak ere -*La era postmedia* eta *El tercer umbral*- dohainik deskarga daitekeen formatu elektronikoan argitaratzen dira. Azkenik, *Agencia Crítica* edo *Salon Kritis* bezalako proiektuak, biak aldizkari elektroniko moduan argitaratuak blog formatuan, dira berriro ere, uste dut, aitzindariak arte kritikaren eta politika instituzional eta artistikoen kritikaren inguruan esparru publiko independente eta parte-hartzaile bat sortzeko ahaleginetan.

Jose Luis Brea Irakasle Tituludunak Estetika eta Gaur Egungo Artearen Teoria irakasten du Madrileko Carlos III Unibertsitatean. *Estudios Visuales* aldizkariaren zuzendaria da. Bere azken liburuen artean nabarmentzen dira: “Estudios Visuales. La epistemología de la visualidad en la era de la globalización”. AKAL, Madrid, 2005.

“El tercer umbral. Estatuto de las prácticas artísticas en la era del capitalismo cultural.” CENDEAC, Murcia, 2004. “La era postmedia. Acción comunicativa, prácticas (post)artísticas y dispositivos neomediales.” Editorial Centro de Arte de Salamanca, Salamanca, 2002.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons

lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu